

ENPRESA IDEIA

DEFINITZEN

ENPRESAREN IDEIA DEFINITZEN:

Gure enpresa definitzeko garaian, hainbat proposamen jaso ditugu, asmatu gabe zeudenak edota jadanik asmatuak zeudenak. Esaterako, mutilentzako *body*-a sortzea, dagoeneko asmatuak zeuden errotulagailu fosforitoak hobetzea, azkazaletako produktu berri bat sortzea... Mutilentzako *body*-a baztertu dugu, komunera joateko garaian deserosoa izango zelako. Errotulagailu fosforitoak ere baztertu ditugu, jada kolore asko asmatuak daudelako, baita ezabatzen direnak ere. Burura etorri zitzaigun azken ideia, azkazaletako produktu berri bat sortzea izan zen, baina hori ere baztertu egin behar izan dugu. Horren arrazoi nagusia da, jendeak beti erabili diren produktuak erabiltzen dituela, horiek erabiltzeko ohitura duelako. Ondorio honetara iristeko, aski izan zaigu gure taldeko nesken artean galdetzea. Denok azetona eta kotoia erabiltzen dugu. Ez dugu beste produktu berritzailerik erabiltzen azkazaletako esmaltea kentzerako garaian. Merkatua, gu bezalako da eta guk bezala ez du produktu berritzailerik probatu nahi, bere egunerokotasunean erabiltzen duenarekin oso gustura baitago. Horrelako pentsamenduak eta ideiak oso kaltegarriak dira gu bezalako ekintzaile berrientzat. Merkatuan produktu berrientzako eskaerarik ez badago produktu berriak asmatzeak ez du ezertarako balioko.

1.BEHARRA AZTERTU

Denbora bat taldean eztabaidatzen egon ondoren, ideia bakar batera iritsi gara. Merkatuan asmatuta dagoen zerbait hobetzea adostu dugu. Ideia horrek, belarriak garbitzeko produktua hobetzea du helburu, hau da, gaur egun produktu hau, plastikoz egina dago eta material hau kutsagarria da gure ingurunearentzat. Beraz, etorkizun batean, nahiz eta ez balitz plastikoaren legea onartuko, gure produktua zuhaitzetako hosto lehorrez eta arrautza-oskolaz egitea pentsatu dugu. Material hauek aukeratu ditugu biodegradagarriak direlako. Horrek esan nahi du, bere kabuz deskonposatzeko gai direla material organikoekin, beraz, ez dute kutsadurarik sortuko. Horrela, ingurunea askoz hobeto zainduta egongo da, eta guk belarriak garbitzen jarraitu ahal izango dugu. Gure iritziz, eskainiko dugunak abantailak izango ditu, izan ere, produktua erabilgarria izaten jarraituko du, baina inguruneari kalterik suposatu gabe. Gure produktua besteengandik desberdindu ahal izango dugu, lehen esan bezala, ez-ohiko eta material berritzailez osatuta egongo baita. Produktu hau aurrera ateratzeko, kontsumitzaileak plastikoaren kalteez ohartarazi beharko ditugu, gure produktuarekin, publizitatea eginez. Horrekin batera, marketin kanpaina bat egingo dugu gure lehiakideekin lehiatzeko eta konpetentzia (plastikozkoak egiten dituztenak) baino hobeak izateko.

2.GURE EKARPENA DEFINITU

Gure taldean motibazioa nabari da ideiei bat aurrera eramateko, horrekin batera, nahiko ona da gure etorkizun sena. Esan beharra dago, autokonfiantza eta autonomia, batzuegan nahiko ona dela, baina besteengan ez dela oso ona. Denek dugu konpromezua eta ardura lan egiteko, bai taldean, bai bakoitzak bere aldetik ere, gure produktua kalitatezkoa eta ahalik eta hobereana izan dadin. Gainera, jendaurrean gauzak azaltzeko gaitasuna dugu, sormen handiko pertsonak gara, ideia berritzaileak ditugu eta gehienetan gure akatsetatik ikasten saiatzen dugu(autoikaskuntza). Denok dugu produktua ondo saltzeko gaitasuna, gure arteko komunikazioa nabaria da, talde lanetan gogotsu aritzen gara, baina batzuetan nahiago dugu bakarka lan egin, lasaitasun gehiagoz. Azkenik, taldekide guztiek dugu

gaitasuna lider bezala taldea aurrera eramateko. Gure interes nagusia, mundu ekologiko batean bizitzea da, izan ere, ez dugu kutsadurarik aurkitu nahi. Bestalde, guk egin dezakegun ekarpena da itsasoko fauna zainduagoa egotea, hau da, gure produktua plastikozkoa ez denez, ez ditu ez animaliak ez eta bere habitata kutsatuko, jendeak komunitate behera botatzen dituen. Ez lirateke komunitate bota behar, baina errealistak gara eta badakigu hori horrela dela. Horrelakoak aldatzea beste momentu baterako kontua izango litzateke.

3.BRAINSTORMING

1 FASEA: Gure produktua definitzen hasi baino lehen, hainbat ideia eduki ditugu, eta horiek guztiak hasieratik onartu ditugu eta ez ditugu kritikatu, izan ere, produktu onak izango zirela pentsatzen genuen, merkatuan produktu berri bat sortzea ez delako lan erraza. Hauek izan ziren ideiak: mutilentzako *body*-a sortzea, dagoeneko asmatuak zeuden, errotulagailu fosforitoak hobetzea eta azkazaletako produktu berri bat sortzea.

2 FASEA: Hasieran genituen ideiak ez ditugu garatu, ez zituztelako guk nahi genituen baldintzak betetzen. Oztopo batzuk aurkitu genituen, ideia garatzerakoan. Hasiera batean bota genuen ideietako bat, mutilentzako *body*-ak egitea zen. Gaur egungo gizartea behatuz ikusi genuen, mutilek kamiseta barrutik zeramatela, horregatik, pentsatu genuen mutilek *body* baten beharra zutela, baina gero konturatu ginen pixa egiterakoan deserosoa zela. Nextetan berriz, ez genuen horrelako arazorik aurreikusirik, baina gure produktua mutilentzat ere izatea nahi dugunez ez genuen bideragarria ikusi. Gure bigarren ideia, ezabatzen ziren fosforitoak asmatzea zen, izan ere, ikasle askok faltan botatzen dute borratu daitekeen fosforitoa. Gu horietako batzuk gara, ikasterako garaian idatzitakoa ezabatu nahi dugulako eta *tippexa* erabiltzera jo dugulako. Gero, konturatu ginen produktu hori asmatua zegoela eta guk ezin genuela eskaini, guk eskaini nahi dugun produktua berritzailea izatea nahi dugulako. Jarraitzeko, beste ideia bat bururatu zitzaigun. Azazkalak margotzeko boteetan esmaltea kentzen duen likidoa sartu nahi genuen (asmatu gabea). Merkatuan jadanik existitzen den kotoia eta azetonaren erabilerari buelta bat eman nahi genion eta beste produktu bat ekoizti nahi genuen, baina hori ere ez zen bideragarria izan, merkatuan horren inguruko produktu asko zegoelako eta jendeak azetona eta kotoia erabiltzeko ohitura zuelako. Azkenik, aurrera eramanez nahi dugun ideia, plastikozkoak ez diren kotoi-zotzak egitea da. Telebistan ikusi dugu, itsasoa zaborrez bete dagoela eta geroz eta animalia gehiago kutsadura artean bizi direla. Horretarako, biodegradagarriak diren materialiez egingo ditugu, arrautza-oskolak eta hosto lehorrak, batik batik.

3.FASEA: Taldean esan ditugun ideia guztiak garatzen saiatu gara, hau da, mutilentzako *body*-a hasieran ideia ona iruditu zitzaigun, eta horri buruz taldekideen hainbat iritzi jasotzen, ez zela produktu erabilgarria izango ikusi genuen. Ondoren, errotulagailu fosforitoak hobetzeko ideia bururatu zitzaigun baina hori ere baztertu egin behar izan genuen, jada kolore asko asmatuak daudelako, baita ezabatzen direnak ere. Burura etorri zitzaigun azken ideia, azkazaletako produktu berri bat sortzea izan zen eta hau ere baztertu egin genuen. Produktu hori garatzen hastean, erabilgarria izango zela pentsatuz, pixkanaka geroz eta oztopo gehiagorekin aurkitu ginen. Beraz, hauek guztiak baztertu ondoren, ideia bakar batera iritsi gara. Ideia horrekin, merkatuan asmatuta dagoen

produktu bat hobetzea adostu dugu. Ideia horren helburu nagusia, belarriak garbitzeko produktua hobetzea da, hau da, gaur egun produktu hau, plastikoz egina dago eta material hau kutsagarria da gure ingurunearentzat. Horrekin konturatu ginen, ingurua zaintzeko beharrezkoa zela berrikuntza hau egitea eta hori izango da gure helburua. Produktu hau orain bezain erabilgarria izango da etorkizun batean, baina berrikuntza honekin, ingurua zaindu ahalko dugu.

4.ENPRESA IDEIA

Esan bezala gure ideia izanik, produktu hau ekoizteko enpresa bat izango litzateke gurea. Hasteko, produktu antzekoa ekoizten duten enpresak direla eta, etorkizunean ezarri daiteken kotoi zotzen inguruko legea dela eta, kompetentzia asko murriztuko zitzaigun. Horrez gain, produktu hau ekoizteko orduan, aurrekariak izango ginen, produktu berria delako. Eskariari erreparatuz, asko edukiko genuke, lehen esan bezala, lege horrek kompetentziako enpresak ezeztatuko zituelako, eta jendeak behar duenez, gure produktua erosi beharko zuelako.

Enpresaren bideragarritasuna dela eta, aurreikusten dugu bideragarria izango zela, merkatuan behar hori aurkitzen delako, eta produktu hau ekoizteak ez zuelako izango gastu handia, material organikoz osaturik egongo zirelako. Gainera, material organikoekin eginaz egotean, ingurumenarekin ardura hartuko genuke horrela gure enpresa erakargarriagoa eginez.

Anje Delgado, Danel Garcia, Yurene Fernandez, Estibalitz Navarro eta Garazi Perez.